

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

#### SEGURTASUN SAILA

## 3916

*EBAZPENA, 2013ko ekainaren 20koa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiarena, Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probetarako dei egiten duena.*

Maiatzaren 22ko 76/2012 Dekretuaren bitartez (ekainaren 5eko EHAA, 109. zk.) aldatutako otsailaren 24ko 30/1998 Dekretuko 15. artikuluan ezarritakoa betez, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko aldizkako deialdiak egiten ditu Ertzaintzaren karrerako eta praktiketako funtzionarioentzat.

Horregatik, Ertzaintzan euskara normalizatzeko prozesua arautzen duen Dekretuaren bitartez aldatutako 76/2012 Dekretuak zehaztutako Ertzaintzaren 1. eta 2. hizkuntza-eskakizunei buruzko oinarritzko edukiarekin bat etorritz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko euskara probak egiteko deialdia onestea, ebazpen honen 1. eranskinean agertzen diren oinarrien arabera.

Bigarren artikulua.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, edo zuzenean aurkatu ahal izango dute administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

Berraztertze-errekurtsoa aurkeztuz gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu ebazpen adierazia eman arte, edo, jarritako berraztertze-errekurtsoaren presuntziozko ezespena gertatu arte. Interesdunek administrazioarekiko auzien jurisdikzioa aukeratuz gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri beharko du eskumena duen Administrazio Auzien Epaitegiari zuzenduta, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita betiere, uztailearen 13ko 29/1998 Legearen 14. artikulua ezartzen duenarekin bat etorritz. Era berean, deialdi honetan, Epaimahai Kalifikatzaileen jardueratik eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako organoetatik ondorioztatzen diren egintza administratibo guztiak aurkatu ahal izango dituzte interesdunek, administrazio prozedura erkideari buruzko arautegian ezarritako eran eta kasuetan.

Arkauti, 2013ko ekainaren 20a.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia,  
MALENTXO ARRUABARRENA JULIÁN.

2013ko irailaren 13a, ostirala

## 1. ERANSKINA

## OINARRIAK

## I. KAPITULUA

## DEIALDIAREN EREMUA ETA XEDEA

Lehenengoa.– Deialdiaren xedea.

Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko euskara probak egiteko deialdia egingo da. Horren edukia maiatzaren 22ko 76/2012ko Dekretuaren eranskinean jasotzen da.

Bigarrena.– Aplikazio eremua.

Ertzaintzako karrerako funtzionarioek eta praktiketako funtzionarioek har dezakete parte probetan, maiatzaren 22ko 76/2012 Dekretuaren aplikazio eremuan badaude.

## II. KAPITULUA

## ERTZAINZAREN 1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA EGIAZTATZEKO PROBAK

Hirugarrena.– Probak.

Probetan zenbait ariketa egin beharko dira, eta horien helburua izango da izangaiek duten euskararen ezagupena neurtzea. Probetan kontuan hartuko dira maiatzaren 22ko 76/2012 Dekretuko hizkuntzaren gaitasunak, eta halaber, bat etorriko dira Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ezarritako aginduekin.

Laugarrena.– Ertzaintzaren 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko prozesuak bi proba izango ditu.

Idatzizko proba: proba honetan idatziaren ulermenean eta idazmenean erakutsitako trebetasunak ebaluatuko dira. Trebetasun bakoitza banaka aztertuko da eta trebetasuneko ariketa bat edo gehiago izango dira, horretarako osatutako Epaimahai kalifikatzaileak erabakitakoaren arabera. Azken emaitza «gai» edo «ez gai» izango da eta idatzizko proban; «gai» emaitza lortzeko bi trebetasunak gainditzea ezinbestekoa izango da.

Ahozko proba: proba honetan ahozkoaren ulermena eta ahozkoa ebaluatuko dira. Trebetasuneko ariketa bat edo gehiago egin ahal izango dira, Epaimahai kalifikatzaileak erabakitakoaren arabera. Trebetasun bakoitzari dagokion kalifikazioa «gai» edo «ez gai» izango da. Ahozko proba gainditzeko ezinbestekoa izango da trebetasun biak gainditzea. Azken emaitza orokorra «ez gai» denean, edozein trebetasunetan lortutako «gai» emaitzek ez dute inolako baliorik izango.

Bosgarrena.– Ahozko proba egin ahal izateko, aurkeztuko direnek idatzizko proba gainditu beharko dute. Hala ere, 2013ko otsailaren 1eko Ebazpenaz (otsailaren 22ko EHAA, 38. zk.) argitaratutako deialdian idatzizko proba gainditu duten Ertzaintzako karrerako edo praktiketako funtzionarioek zuzenean egin ahal izango dute ahozko proba.

Deialdi honetan idatzizko proba gainditu dutenak salbuetsita izango dira hurrengo deialdian idatzizko proba hori egitetik, eta zuzenean jo ahal izango dute ahozko proba egitera.

## III. KAPITULUA

## PROZEDURA

Seigarrena.– Eskabideak.

1.– Deialdi honetan parte hartu nahi duten guztiek, baita idatzizko proba egitetik salbuetsita daudenek ere, eskabidea egin beharko dute saileko intranetaren bitartez «Gurenet», bertan esku-ragarri izango den eskabide erdua betez.

2.– Eskabideak aurkezteko epea, ebazpen hau EHAA-n argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, 15 egun naturalekoa izango da.

Zazpigarrena.– Probetara onartutakoen eta bazter utzitakoen behin-behineko zerrenda.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak erabakiko du idatzizko eta ahozko probetara onartutakoen eta bazter utzitakoen behin-behineko zerrenda. Zerrenda hau Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Iragarki-oholean argitaratuko dira.

Zortzigarrena.– Onartu eta bazter utzitakoen behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak.

Probetara onartu eta bazter utzitakoen behin-behineko zerrenda onartzen duen Ebazpenaren kontra interesdunek, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Iragarki-oholean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bost egun naturaleko epean. Aipaturiko erreklamazioak, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariari bideratuko zaizkio.

Aipaturiko Ebazpenean, probak zuzendu eta neurtuko dituen Epaimahaiaren izendapena, idatzizko probaren eguna, ordua eta tokia adieraziko dira.

Bederatzigarrena.– Onartuen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda.

1.– Aurreko oinarriak aipatzen duen bost eguneko epea amaitu ondoren, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak argitaratuko du, ebazpen baten bidez, probak egiteko onartuen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda. Ebazpen hori Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Iragarki-oholean argitaratuko da.

Idatzizko proba ezin izango da egin aipaturiko onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu aurretik.

Hamargarrena.– Epaimahai Kalifikatzailea.

1.– Probetarako Epaimahai Kalifikatzailea berezitasun printzipioan oinarrituta izendatuko da, eta karrerako funtzionario edo langile finkoek osatuko dute. Horietariko gehienek Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko lanpostuei dagokien 4. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izango dute.

Epaimahai Kalifikatzaile hau mahaiburu batez eta hiru bokalez osaturikoa izango da. Era berean, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako langile batek idazkaritza funtzioak beteko ditu. Beti ere, Epaimahai honetan Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ordezkari bat izango du.

2.– Kide anitzeko organoen funtzionamenduaren arautegiak zuzenduko du Epaimahaiaren jardura. Dena den, Epaimahaiak egoki ikusten dituen laguntzaileak izendatu ahal izango ditu, behar duen aholkularitza eta laguntza teknikoak jaso dezan.

3.– Deialdiaren prozesuan dauden probak garatzea, zehaztea eta ebaluatzea Epaimahai Kalifikatzaileari dagozkio. Epaimahai Kalifikatzaile honek autonomia osoz jokatu du, eta bere ardura izango da prozedura objektiboa izatea eta deialdiaren oinarriak beteko direla bermatzea.

4.– Epaimahaiaren erabakiak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Iragarki-oholean argitaratuko dira.

5.– Epaimahai Kalifikatzaile honetan parte hartzeagatik legez ezarritako lansariak jasoko dira.

Hamaikagarrena.– Probak garatzea.

1.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak edo Epaimahai Kalifikatzaileak, eskabide kopurua eta Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiaren baliabideak eta zerbitzu beharrak kontuan hartuta, probak zenbat egunetan eta zein tokitan egin erabaki ahal izango du.

2.– Idatzizko probaren inguruko ariketak burutu ostean, Epaimahai Kalifikatzaileari dagokio, Akordio bidez, behin-behineko emaitzak onartzea. Emaitzak «Gai» «Ez gai» kalifikazioa izango dute. Era berean, aipaturiko akordioan zehaztuko dira, ahozko proba egiteko data, tokia eta ordua.

Behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, interesdunek bost egun naturaleko epea izango dute Epaimahai Kalifikatzailearen aurrean erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori amaituta, erreklamaziorik aurkeztu ez duten izangaien emaitzak behin betiko bihurtuko dira eta aurkeztutako erreklamazioak Akordio bitartez Epaimahai Kalifikatzaileak ebatziko ditu. Akordio honen aurka, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiari gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Ahozko proba egikaritzeko datarako aurkezturiko erreklamazioak ebatzi ez badira, erreklamazioaren bat aurkeztu duten izangaiek ahozko proba burutu ahal izango dute, nahiz eta honek soilik balioa izango duen, baldin eta hautagaia azkenik onartua bada.

3.– Ahozko probari dagokionean, horren aurrean jarri litezkeen erreklamazioen epe eta organo eskudunentzako oinarri honen bigarren atalean ezarritakoa izango da kontuan.

Hamabigarrena.– Behin betiko emaitzen argitarapena.

Bigarren zatiko proben behin betiko emaitzak onartzen dituen Akordioaren erreferentzia, 1. Hizkuntza-eskakizuna gainditu dutenen Ertzaintzako karrerako funtzionarioei eta praktiketako funtzionarioei dagokiona, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritzari aurkeztuko zaio. Akordio hori Zuzendaritzak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Iragarki-oholean eta Segurtasun Saileko Intranet-ean argitaratuko du.

Hamahirugarrena.– Oinarri-arau hauetan aurreikusten ez diren guztietan, Ertzaintzan Euskara-ren Normalkuntza arautzen duten otsailaren 24ko 30/1998 Dekretua eta maiatzaren 22ko 76/2012 Dekretua aplikatuko dira.